



Goi-mailako arte irakaskuntzen egoera eta erronkak EAEn



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Goi-mailako arte irakaskuntzen egoera eta erronkak EAEn

1 Sarrera

1.1 Goi-mailako arte-irakaskuntzen esparrua eta testuingurua

- 2.1. Goi-mailako arte-irakaskuntzen lege-esparrua
 - 2.1.1 Egungo egoera
 - 2.1.2 Aurrekariak eta bilakaera historikoa
- 2.2. Plan zaharrak eta irakaskuntzan aritzeko gaitasuna
- 2.2.1 Plan zaharrak
- 2.2.2 Irakaskuntzan jarduteko betekizunak
- 2.3. Prestakuntza-eskaintza eta eskaria EAEn
 - 2.3.1 Eskaintza
 - 2.3.2 Eskaria

3.1 Goi-mailako arte-irakaskuntzei buruzko eztabaida

- 3.1. Arte-irakaskuntzaren berezitasunak
- 3.2. Unibertsitate-garapen osoa
- 3.3. Goi-mailako irakaskuntzen aurreko arte-prestakuntza

4.2 Europako esperientziatik egindako hausnarketa

- 4.1. Goi-mailako arte-irakaskuntzak antolatzeke formulak
- 4.2. Espainiaren kasurako izan daitezkeen agertokiak

5. Ondorioa: egoeraren laburpena eta erronkak

1 Sarrera

Goi-mailako arte-prestakuntza funtsezko elementu bat da herrialde bateko kultura-sisteman, eta sorkuntzaren eta bizitza kulturalaren eragile modura jokatzeko du. Europak gero eta inportanteagoztat jotzen du bizitza kulturala jasangarritasunaren zutabe modura¹. Gainera, azken hamarkadetan, gero eta interes gehiago egon da ekonomia sortzailea garatzeko, ezagutza batean oinarritua, zeinak, beste ikuspegi batetik, lehenetasun estrategiko modura definitzen baititu artea eta kultura. Izan ere, arteak gero eta arreta gehiago jasotzen du, eremu sortzaile baita eta gizarte- eta ekonomia-interesei aplikatu dakizkien ezagutzak ditu.

Jakina denez, horrek zabaldu egin du kulturatzat ulertzen dena, eta beste eremu batzuk sartu ditu, erabat artistikoak ez direnak baina bai sortzaileak. Adibidez, industria kulturaletatik industria kultural eta sortzaileetara pasatzen da, eta aterki beraren azpian sartzen dira era horretako industriak.

Horrek esan nahi du ezen, irakaskuntza artistikoetan, beste hainbat irakaskuntza ere koka daitezkeela, artistiko eta kultural hutsetik hasi, eta funtzional eta sortzaileeneraino iritsi arte (dramaturgiatik ikus-entzunezko komunikaziora).

Errealitate horren aurrean, azpimarratu behar da ikerketa honek goi-mailako arte-irakaskuntzat jotzen dituela egungo lege-esparruan identifikatzen direnak: musika- eta dantza-ikasketak, arte dramatikoak, kultura-ondasunen (KO) kontserbazio eta zaharberritzea, diseinua eta arte plastikoak (zeramika eta beira barne).

Beraz, ulertu nahi da zein den irakaskuntza horien ibilbidea eta unea egungo testuinguru sozial eta ekonomikoan.

Lehenengo eta behin, goi-mailako arte-irakaskuntzen lege-esparruaren hurbilketa bat egiten da, eta kuantifikatu egiten da zein den sektoreak Euskadin duen errealitatea, eskaintza eta eskaria kontuan hartuz.

Bigarrenik, hausnarketa bat egiten da irakaskuntza horien oraina ulertzeko bi eremu erabakigarri buruz: irakaskuntza-moten berezitasunak eta haien izaera goi-mailakoa baina ez unibertsitatekoa. Bloke horrek laguntzen du errealitatea markatzen duten elementuen ikuspegi panoramikoak izaten, oinarritzkoak baitira irakaskuntzen etorkizunaz pentsatzeko.

Horrela, hirugarrenik, azaltzen da zein formula nagusi erabili diren goi-mailako arte-irakaskuntzak antolatzeko Europako beste herrialde batzuetako hezkuntza-sistemetan. Kontuan izanik zein garrantzitsua den goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua, Boloniako prozesuaren ondorioz eraikia, Europako begirada ezinbestekoa da pentsatzeko zein izango den irakaskuntza horien etorkizuna EAEn.

Azkenik, ondorioetan, aditzera ematen da zein elementu nagusi jaso behar diren goi-mailako arte-irakaskuntzen egungo egoera ulertzeko eta, horrela, dituen erronkak identifikatzeko.

¹ Kulturen Euskal Behatokiak oraintsu kaleratu duen "Kultura eta jasangarritasuna" izeneko txostenak ikuspegi zabala eskaintzen du gai horri buruz. Hemen eskuratu daiteke: http://www.kultura.ejgv.eushadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb_argit_kultura_jasangarrita/eu_def/index.shtml

2_ Goi-mailako arte-irakaskuntzen esparrua eta testuingurua

Hausnarketaren abiapuntua zehazteko, erabakigarria da ezagutzea zein den goi-mailako arte-irakaskuntzen lege-esparrua eta zein den haien egungo testuingurua, EAEko eskaintza eta eskaria kontuan izanik.

Bloke honetan, deskribatzen da, lehenik eta behin, zein izan den lege-esparruaren bilakaera, eta azpimarratzen da zein izan diren unerik garrantzitsuenak, 1970etik gaur arte. Bigarren atal batek, berriz, data horren aurreko ikasketa-planetan jartzen du begirada, goi-mailako arte-irakaskuntzen gaurko testuingurua hobeto ulertzeko: azken hamarkadetan izan duten etengabeko bilakaera kontuan izanik, beren-beregi jartzen da arreta irakasleak gaitzean eta egungo ikasketa-planak sortzean.

Azkenik, bloke honetako hirugarren atalean, EAEko goi-mailako arte-irakaskuntzen eskaintza (ikastetxeak eta graduak) eta eskaria (matrikulatutako ikasleak) zenbatzen dira.

2.1_ Goi-mailako arte-irakaskuntzen lege-esparrua

2.1.1 Egungo egoera

Batez ere Hezkuntzako **2006ko Lege Organikoak (LOE)** arautzen ditu arte-irakaskuntzak. LOEk araubide berezia ematen die arte-irakaskuntzei. Horrela, goi-mailako arte-irakaskuntzak unibertsitatetik kanpo antolatzen dira; lege propioa dute, eta autonomia erabat garatua.

Modu orokorrean, arte-irakaskuntzen araubide bereziak oinarritzko irakaskuntzetan, irakaskuntza profesionaletan² eta goi-mailakoetan antolatzen dira. Maila bakoitzean, diziplina hauek antolatzen dira:

- Oinarritzekoak: musika- eta dantza-ikasketak
- Profesionalak: musika- eta dantza-ikasketak eta arte plastikoetako eta diseinuko graduak, erdi-mailakoa eta goikoa.
- Goi-mailakoak: musika- eta dantza-ikasketak, arte dramatikoa, K0ren kontserbazio eta zaharberritzea, diseinua eta arte plastikoak (zeramika eta beira barne).

² Gradu "profesionala" esaten zaio azken lege-garapenen aurretik (aurrerago azaltzen dira) dantzarako mailarik altuena izan zenari. "Erdi-mailako gradu"ko ohiko etiketatik bereizten da, zeren onartu nahi da titulurik handiena dela (musikan ez bezala).



2.1.2 Aurrekariak eta bilakaera historikoa

Arte-irakaskuntzak araubide berezikoak dira Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko 1990eko Lege Orokorretik (LOGSE). Denboran atzerago jota, **Hezkuntzako Lege Orokorra** (HLO, 1970) oso aurrekari esanguratsua da goi-mailako arte-irakaskuntzetarako:

- Hark ezartzen zuen unibertsitatean sartu behar zirela arte ederretako eskolak, musika-kontserbatorioak eta Arte Dramatikoko eskolak (dantza barne), hiru zikloak.
- Arte eta Ogibide Artistikoetako eskola zaharretatik datoz, berriz, arte plastikoetako eta diseinuko irakaskuntzak eta KOren kontserbazio eta zaharberritzea, eta LOErekin soilik lortu zuten maila bera; izan ere, LOGSEk, ikasketa horientzat, bakarrik hartzen zituen aintzakotzat gradu profesionaleko maila biak (erdi- eta goi-mailakoa). Hala ere, une hartan, HLOk adierazi zuen ziklo bakarreko unibertsitate-eskola modura integratu beharko lirakeela.
- Kontuan hartu behar da ezen testuan, beste irakaskuntza batzuk ez bezala, oso modu orokorrean lantzen zirela artistikoak, irakaskuntzen araudi berri bat edo funtsezko antolaketa bat eragin gabe.

Deskribapen horrek irakaskuntza artistikoen bilakaeraren bi gertakari interesgarri nabarmentzen ditu:

1. Lehenik eta behin, ezen, 1970eko HLOren ostean, berezita bilakatu direla Arte Ederrak eta gainerako arte-irakaskuntzak: lehena, unibertsitate-araubidearen barruan, eta besteak, berriz, araubide bereziko modura. Legean emandakoa gorabehera, praktikan, Arte Ederrak bakarrik integratu ziren unibertsitate-egituran fakultate modura, 1978an (**988/1978 ED**).
2. Bigarrenik, ezen, oraintsu arte (2006ko LOE), egungo goi-mailako arte-irakaskuntzek trataera berezia zutela: arte plastikoetako eta diseinuko irakaskuntzak eta KO kontserbatzea eta zaharberritzekoak –Arte eta Ogibide Artistikoetako eskoletatik zetozen (aurretik Arte eta Ogibideetako eskolak eta Arte eta Industriako eskolak)– bakarrik garatu ziren gradu profesionala arte

(erdi-eta goi-mailako gradua). Musikako eta arte dramatikoetako irakaskuntzek, berriz, goi-irakaskuntzak izenez ezagutzen diren irakaskuntzak eskaintzen zituzten (baina unibertsitatekanpo), Instrukzio Publikoko lehenengo legetik (**Moyanoren 1857 Legea**³ esaten zaio).

Hala, kontuan hartuz 1970eko HLOk ez zuela ia arau berririk sortu nahiz eta adierazi irakaskuntza horiek unibertsitatean integratu behar zirela, LOGSEk bereizketa biak mantendu zituen: Arte Ederrekin zegoena eta arte-irakaskuntza propioen barnean zegoena. Harrezkero, lege-garapen berrietan, luzatu eta sakondu egin da arte-irakaskuntzen anomalia hori, goi-mailakoak izatea baina ez-unibertsitatekoak; esaterako, **Hezkuntzaren Kalitatearen 2002ko Lege Organikoan (LOCE)** eta 2006ko LOEn, zeinak araubide berezikotzat jotzen baititu (hala ere, arte-irakaskuntzat jotzen diren irakaskuntza guztien goi-maila garatzen du).

Gaur egun, goi-mailako irakaskuntza artistikoen egoera eta erronkak ulertzeko, araubide berezikoak izatea da ezaugarri nagusia. Egoera horren ezaugarri nabarmengarrien artean, aipatu daiteke:

- Arte-irakaskuntzen goi-mailako ikastetxeak unibertsitate-eremutik kanpo daude, nahiz eta goi-mailako hezkuntzakoak izan.
- Arte-irakaskuntzetako goi-mailako tituluak graduaren balioak dira, baina ez dira, berez, graduak. Biak dira Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko (MECES) 2. mailakoak.
- Era berean, MECESko 3. mailak –gradu-ondoko espezializazioa– Arte Irakaskuntzetako Masterra eta Unibertsitate Masterra bereizten ditu.

Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua

2. maila	3. maila	4. maila
<ul style="list-style-type: none"> > Arte Irakaskuntzetako goi-mailako titulua > Unibertsitate-gradua 	<ul style="list-style-type: none"> > Irakaskuntza Artistikoetako masterra > Unibertsitate-masterra 	<ul style="list-style-type: none"> > Doktoregoa* <p>*Arte-irakaskuntzetako ikastetxeek bakarrik eskaini ditzakete, unibertsitateekin hitzarmena izanez gero</p>

3_ Kontuan hartu behar da lege horrek goi-mailakotzat baina ez-unibertsitatekotzat jotzen zituela hainbat ikasketa, zeinak, arte-ikasketak ez bezala, unibertsitate-egituran integratu baitira hainbat erreformetan zehar. .



- Araubide bereziko goi-mailako arte-irakaskuntzako tituluak unibertsitatez kanpoko ikastetxeen Estatuko Erregistroan jasotzen dira.
- Ikasketa-planak, berriz, ECTS kredituen transferentzia-sistemaren bidez egokitu dira Goi-mailako Hezkuntzako Europar Esparrura; beraz, pedagogikoki, Boloniako prozesura egokitu dira (konpetentziak, metodologiak,...).
- Arte-irakaskuntzetako goi-mailako ikastetxeek bakarrik eskaini ahal dituzte doktorego-ikasketak (MECESko 4. maila) baldin eta hitzarmena badute unibertsitateekin, nahiz eta legeak onartu goi-mailako eskolek aukera dutela ikerketa-programa propioak garatzeko.
- Arte-irakaskuntzen goi-mailako ikastetxeek Hezkuntza Administrazioaren menpe daude, unibertsitateak ez bezala, autonomia osoa eta izaera juridiko propioa ditu eta.

Oraintsu promulgatu diren arauak ahalegindu dira oinarriak ezartzen goi-mailako hezkuntzako izaera osoa garatzeko, honelako gaiak kontuan hartuta:

- Goi-mailako ikastetxeen autonomia garatzea antolaketa-, pedagogia- eta kudeaketa-eremuetan.
- Hirugarren zikloko ikasketak antolatzea: Hezkuntza Administrazioari gradu-ondokoak proposatzeko ekimen propioa onartuta, eta iragarrita aukera dagoela ezen, Hezkuntza Administrazioen babesean, hitzarmenak sina daitezten doktorego-ikasketak garatzeko.
- Ikerketa-programak garatzen dituzten goi-mailako ikastetxeen gaitasuna eta premia onartzea.

Hala eta guztiz ere, neurriak iragarki modura geratu dira beti, baina ezartzeko laguntzarik gabe (baliabideak, aurrekontua, garatzeko araudia...), goi-mailako arte-irakaskuntzen posizioari indarra emanez bigarren hezkuntzaren eta unibertsitate-hezkuntzaren arteko toki batean. Ezaugarri horrek definitzen du argien egungo egoera: legeriak estandar batzuk ezarri ditu, baina estandar horiek ez dira zehaztu eta ebatzi; beraz, konpondu gabeko erronka modura geratzen dira.

Horrek guztiak inportantzia handiagoa eta konplexutasun-puntu bat handiagoa hartu zuen 1999an, Boloniako Deklarazioaren prozesua hasi zenean, zeinak Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua garatu eta ezarri baitzuen, titulazioen mugikortasuna sustatzeko premiarekin eta, ondorioz, homogeneizatzeko premiarekin.

Oso testuinguru askotarikoan proposatu zen homogeneizatzeko hori. Europako luze-zabalean, arte-irakaskuntzak hainbat modutan eratu dira, legez (4.1. atalean azaltzen da, gutxi gorabehera errealitate anitz hori). Espainiako kasuan, goi-mailako arte-irakaskuntzak araubide berezizat jotzean arestian adierazitako inplikazio guztiekin, Boloniako prozesuak aukera ematen zuen behin betiko ebazteko erronkak. Hala ere, ikusienez, LOEk (2006) indartu egin zuen arte-irakaskuntzen berezitasuna, eta, nahiz eta bideak ireki zituen goi-mailako arte-irakaskuntzen erronkak gainditzeko **1614/2009 ED**⁴ tik abiatuta, gertaera berriek⁵ eta bilakaera historikorik ez izateak (administrazioari eta sektoreari interpelatzen dioten arrazoiengatik) erakusten dute indarrean segitzen dutela erronka berek eta haien arazoiek.

Auzitegi Gorenaren 2012ko epaiak argi utzi zuen egungo lege-antolamenduaren problematika, agerian utziz ereduak ezin dituela erronkak gainditi. Goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamenduari buruzko 1614/2009 ED garatzeko unean, ikusten zen borondate politikoa zegoela izendapenak aldatu eta arte-irakaskuntzen unibertsitate-izaera onartzeko (Espainiako sistema bete batekin parekatzeko; esaterako, frantsesarekin). Garatze-bide hori moztu egin zen epai judizialekin, argi utziz ezen, LOEren antolamenduan, ezin dela mamitu arte-irakaskuntzei unibertsitate-maila emateko asmoa. Dekretu bidez egiteak -eta hori da Auzitegi Gorenaren epaiaren arrazoiak- esan nahi du goi-mailako legeak urratzen direla (kasu honetan, Unibertsitateen 2001eko Lege Organikoa, ULO). Hala da non bide hori agortuta geratu baitzen, nahiz eta une batean saiatu egoera borondate politikoz konpontzen.

4_ 1614/2009 EDk adierazten du zein diren oinarriak goi-mailako arte-irakaskuntzak antolatzeko eta irakaskuntza horien edukiei buruzko EDak garatzeko (**630/2010 EDtik 635/2010 EDra**) eta zein diren ematen dituzten ikastetxeak (**303/2010 ED**). 5_ 1616/2009 EDren ostean, zeinaren asmoa baitzen eremu propioa duten goi-mailako arte-irakaskuntza horien unibertsitate-izaera zabaltzea LOEtik aurrera, unibertsitate-sektoreak salaketa bat jarri zuen. Salaketa hori Auzitegi Gorenaren epai batekin amaitu zen, 2012an, eta berriro eraman zituen atzera proposatutako aurrerapausoak. **Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa** -2013koak- epai hori onartu zuen, eta **21/2015 EDk**, berriz, 1614/2009 ED aldatu. Nahiz eta epaiak ez baliogabetu araudi-garapenen zati bat, bai eragiten dio unibertsitate-parekatzeren zatirik gorandikoari.

Laburbilduz, hurrengo diagramak erakusten du zein den goi-mailako arte-irakaskuntzak antolatzeko lege-bilakaeraren eta unerik garrantzitsuenen ikuspegi panoramikoa:





2.2 Plan zaharrak eta irakaskuntzan aritzeko gaitasuna

Nahiz eta Moyanoren 1857 Legearen aipamena egin, aurreko atalak 1970etik aurrerako ikuspegia eskaintzen du arte-irakaskuntzen egungo egoera ulertzeko. Atal hau, berriz, are atzerago doa denboran. Hori egiteak zerikusia du begirada jartzearekin goi-mailako irakaskuntzak ematen dituzten irakasleetan. Irakaskuntza horiek etengabe ibili dira bilakatzen estandar gero eta gardenagoetara eta kalitatezkoetara: Zelan eragin die horrek irakasleei?

Atal honek fenomeno horretan sartu nahi du ikasketa-plan zaharrei eta haien kokalekuari begiratu bat emateko, kontuan izanik zer betekizun dauden egun irakaskuntzan aritzeko eta zer mekanismo dauden titulazioak eguneratzeko. Horrela, atalak lagundu egiten du arte-irakaskuntzen testuingurua ere hobeto kokatzen.

2.2.1 Plan zaharrak

Aurretik, testuinguruan jarri dira 1970eko HLOren osteko goi-mailako arte-irakaskuntzak. Lege horren aurretik, 1942an, lege-antolamendu bat garatzen hasi zen musikako, arte dramatikoko eta dantzako goi-mailako irakaskuntzetarako (**1942ko ekainaren 16ko Dekretua**, Musika eta Deklamazioko Kontserbatorioak Antolatzeari buruzkoa); izan ere, kontserbatorio horiek areagotu ziren, desordenan, **1905eko ekainaren 16ko Errege Dekretupean**. 1942ko dekretu horrek ezarri zuen irakasleak oposaketa-lehiaketa, meritu eta trebetasun bidez izango zirela irakasle. 1952an, **1952ko martxoaren 11ko Dekretuaren bidez**, bereizi egin ziren musika-irakaskuntzak eta deklamaziokoak, lehendik ziren kontserbatorioetan ematen zirenak, 1942tik. Sortu ziren irakasle-plaza berriak ere lehiaketa-oposizio bidez betetzen jarraitu zen.

Testu biak abiapuntu bat ziren irakaskuntza horiek antolatzeko, eta testu horietatik arauak eman ohi ziren. Musikaren kasuan, azkenean antolamendua testu bakarrean idatzi zen, 2618/1966 Dekretuaren bidez, zeina Musika Kontserbatorioen Erregelamendu orokorrari buruzkoa baitzen ("66ko Plan" modura ezagutzen zena). 66ko plan horrek beren-beregi adierazten zuen ez zuela indargabetzen 1952an sortutako irakaskuntzei eta Arte Dramatikoko eskoletako ikastetxeei buruzko zatia.

Ikusirik zer arau gutxi sortu zuen 1970eko HLOk, musikaren eta arte dramatikoen kasuan, 1942ko eta 1966ko plan horiek abiapuntua izan dira baliokidetzak eta irakaskuntzara iristeko ikasketak eta betekizunak sortzeko. Harrezkero, LOGSE eta LOEn oinarrituta, errege-dekretuak ezarri dira baliokidetzak egokiak finkatzeko.

Adibidez, **musika**ko goi-mailako irakaskuntzaren kasuan, indarrean segitzen du 1541/1990 ED eta 1120/2000 EDren 1. artikulua, zeinaren bidez baliokidetzat deklaratu dira, ondorio guztietarako, 1942ko ekainaren 15eko Dekretuaren eta 2618/1966 Dekretuaren (66ko Plana) babespean emandako irakasle-titulua, baita Solista espezializazioko goi-mailako diploma (313/1970 Dekretuko) eta LOGSEko Musikako goi-mailako tituluko Kantu espezialitatea ere.

Arte dramatikoari dagokionez, 770/1997 EDren bidez, 1942ko ekainaren 15eko Dekretuaren babestean emandako irakasle-titulueterako behar diren baliokidetzak guztiak deklaratu dira, baita 2607/1974 Dekretupean emandako diplomena eta 1917ko abuztuaren 25eko EDk emandakoena ere.

Zehazki, kontuan izanik **dantzako** ikasketen goi-garapena, 169/2004 EDk eta 798/2005 EDk zehazten dute zelan, Dantzako goi-mailako titulua lortzeko irakaskuntzako ondorioetarako, beharrezkoa baita: LOGSE aurreko dantza-ikasketa ofizialak gaindituta izatea (kontserbatorio edo eskolen ziurtagiri bidez egiaztatuak), gutxienez Batxiler titulua edo haren mailako edo maila goragoko beste titulu bat izatea, dokumentu bidez egiaztatzea ezen gutxienez 3 urteko esperientzia profesionala badela 2002-2003 ikasturtea baino lehenago Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak ezarritako baldintzetan, eta, amaitzeko, 798/2005 EDn araututako prestakuntza-osagarriak gainditzea dantzako goi-mailako kontserbatorio batean.

Azkenik, egungo arte plastikoetako eta diseinuko irakaskuntzen eta KOren kontserbazio eta zaharberritzea irakaskuntzen kasuan, gogoratu behar da aurreko ikasketek ez bezalako sorrera eta lege-garapena dutela. Egungo irakaskuntzetan sartu daitezkeen irakasgaiak edo haietatik hurbiltzat jo daitezkeenak eskola espezializatuetan ematen ziren (hainbat izendapen izan zuten, baina Arte eta Ogibide Artistikoetako Eskola modura izendatu ziren ikasketa horien erregelamentazioari buruzko 2127/1963 Dekretuan). Irakaskuntza horiek ez zuten jaso goi-maila kontuan hartzen zuen antolamendurik LOEra arte, eta batez ere izaera aplikatua eta profesionala izan zuten ordura arte. Maila horretan, 440/1994 EDk eta 1999ko maiatzaren 14ko Aginduak adierazten dute zein ziren titulu profesionalen arteko baldiodidetzak. Goi-mailako garapenaren puntura helduta, kasu horietan, 1618/2011 EDTik aurrera (kontuan izanik 633-5/2010 EDak, aztergai ditugun graduak garatzen dituztenak) erabakitzen da hezkuntza-administrazioak arduratuko direla onartzen norik dituen titulu profesionalak, irakaskuntza-espezialitate bakoitzerako beharrezkoak diren konpetentziekin erlazionatuak.

2.2.2 Irakaskuntzan jarduteko betekizunak

303/2010 EDk, zeinaren bidez ezartzen baitira 2006ko LOEn arautzen diren arte-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko betekizunak, 20 a artikuluan aipatzen du zer betekizun bete behar den goi-mailako arte-irakaskuntzetako irakaskuntzan jarduteko. Bi puntu nabarmentzen dira:

- “**Graduatu** tituluaren jabe izatea, edo lizentziatuarena, ingeniari edo arkitekturarena, edo titulazio baliokidea izatea irakaskuntza ondorioetarako; hargatik eragotzi gabe gobernua beste titulazio batzuk gaitzea, irakaskuntzaren ondorioetarako, irakasgai jakin batzuetarako”.

- “Salbuespen modura, goi-mailako arte-irakaskuntzetako irakasgai zehatz batzuetarako, irakasle espezialista modura sartu ahal izango dira **profesional batzuk, ez nahitaez tituludunak, baina kualifikazio profesional nahikoa dutenak** eta eremuan dihardutenak edo atzerriko nazionalitatea dutenak, betiere kualifikazioaren eta hezkuntza-sistemako premien arabera. Lan- edo administrazio-araubidean sartu ahal izango dira, aplikatu beharreko araudiaren arabera.”

Eremu horretan, zenbait berezitasun ikusten dira (luza eta zabalago jorratuko direnak 3.1 atalean “arte-irakaskuntzaren berezitasunak):

- Unibertsite-irakaskuntzan ez bezala, doktore-titulua ez da betekizun bat irakaskuntzan jarduteko (nahiz eta, arte-masterreko ikasketak emateko, beharrezkoa den ematen dutenen gutxienez %15ek izatea titulu hori).
- Araudi ugaria dago irakaskuntzan jarduteko titulazio-gaikuntzen premiak asetzeko. 2.2.1 atalean azaltzen den parekatze espezifikoen araudiaz gain, adierazten da ezen, irakasle guztiak iritsi ahal izan daitezkeen (norbere titulazioa dela eta) beren prestakuntza pedagogiko eta didaktikorako egokia diren master-ikasketetara, planteatu ahal izango dela prestakuntza bidez egiaztatzea tituluak, Hezkuntza Ministerioak ezarritako baldintzetan.
- Bide bat irekitzen da (berezia, gainerako irakaskuntzen funtzionamenduari dagokionez), beraz, profesionalak kontratatzeke eta, espezializazio-eremuan duten balioa dela-eta, dagozkien irakasgaietan irakats dezaten. Artean, askoz ere ohikoagoa da oso profesional kualifikatuak izatea (izen oneko artistak), titulazio akademiko egokirik ez dutenak.

Azken zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza-administrazio erantzule den aldetik, arautegi espezifikoko bat garatu du oraintsu, unibertsiteatez kanpoko ikastetxeetan irakasle espezialistak kontratatzeke (91/2018 Dekretua). Araudi horretan ezartzen da ezen, beste betekizun batzuen artean, kontratatu aurreko lau urtetatik gutxienez biko jardun behar duela izangaiak, ohikotasunez eta irakaskuntzatik kanpo, eman beharreko irakaskuntzarekin erlazionatutako jardura batean.

Kontratazioa arautzeaz gain, hori da errealitate bat, kualifikazioak berdinu eta onartzeko mekanismoek kontuan hartu beharko luketena, mekanismo zuzenak hornituz kasuan kasuko onarpen akademikoa egiteko, irakaskuntzako kontratazio-prozedurak gorabehera.

2.3 Prestakuntza-eskaintza eta eskaria EAEn

2.3.1 Eskaintza

Gaur egun, EAEn arte-irakaskuntzako⁶ goi-mailako lau ikastetxe daude, eta Arte Ederretako fakultate bakarra⁷:

1	2	3	4	5
ID arte	Kunsthall	Musikene	Dantzerti	Arte Ederren Fakultatea
<ul style="list-style-type: none"> Diseinua 	<ul style="list-style-type: none"> Diseinua 	<ul style="list-style-type: none"> Musik 	<ul style="list-style-type: none"> Antzerkia Dantza 	<ul style="list-style-type: none"> > EHU/UPV • Artea • Sorkuntza eta Diseinua • Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzea

1. ID arte: Arte eta Goi-mailako Diseinu Eskola (Vitoria-Gasteiz, Araba)

- Diseinuko goi-mailako titulua, Barne Diseinuko espezialitatea
- Diseinuko goi-mailako titulua, Diseinu Grafikoko espezialitatea

2. Kunsthall: Diseinuko Goi-mailako Zentro Pribatu Baimendua (Irun, Gipuzkoa)

- Diseinuko goi-mailako titulua, Barne Diseinuko espezialitatea
- Diseinuko goi-mailako titulua, Diseinu Grafikoko espezialitatea

3. Musikene: Musikako Goi-mailako Zentro Pribatu Baimendua (Donostia)

- Musikako goi-mailako titulua, Konposizioko espezialitatea
- Musikako goi-mailako titulua, Pedagogiako espezialitatea
- Musikako goi-mailako titulua, Zuzendaritzako espezialitatea
- Musikako goi-mailako titulua, Interpretazioko espezialitatea
- Orkestra Ikasketetako Arte Irakaskuntzako Masterra (hari-instrumentuak)

4. Dantzerti: Arte Dramatikoko eta Dantzako Goi-mailako Eskola (Bilbo, Bizkaia)

- Arte Dramatikoko goi-mailako titulua, Interpretazioko espezialitatea
- Dantzako goi-mailako titulua, Koreografia eta Interpretazioko espezialitatea

5. UPV/EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea): Arte Ederretako Fakultatea (Leioa, Bizkaia)

- Arteko gradua
- Sorkuntza eta Diseinuko gradua
- Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko gradua
- Arte Garaikide Teknologiko eta Performatiboko unibertsitate-masterra
- Zeramikako unibertsitate-masterra: Artea eta Funtzioa

6_ Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen Estatuko Erregistrotik ateratako informazioa (RCD). Hemen kontsulta daiteke: <https://www.educacion.gob.es/centros/selectaut.do> (Azken kontsulta: 2019/03/22)

7_ Fakultateko orritik ateratako informazioa. Hemen kontsulta daiteke: <https://www.ehu.eus/eu/web/bellasartes/hasiera> (Azken kontsulta: 2019/03/22)

- Pinturako unibertsitate-masterra
- Ikerketa eta Sormena Artean unibertsitate-masterra
- Arte Garaikidearen Kontserbazioa eta Erakusmoldeak unibertsitate-masterra
- Euskal Dantzetako Unibertsitate Hedakuntzako diploma: Tradizioa versus Sorkuntza (Gradu-ondoko berezko titulua, unibertsitate-espezialista):

- Musika, Dantza eta Pedagogia ikastaro osagarria
- Dantzaren Teoria eta Historia ikastaro osagarria
- Tradizioa versus Sormena ikastaro osagarria Esperientziak eta berriak


- “Moda eta Goi-mailako Jantzigintza” prestakuntza osagarriko ikastaroa (Javier Barroeta Goi-mailako Jantzigintzako Eskola eta EHU)

2.3.2 Eskaria

Ondoren, datuak ematen dira goi-mailako arte-irakaskuntzen eskariaren neurria hurbiltzeko.

Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharbertzeari buruzko ikasketen kasuan, unibertsitate-eskaintza baino ez dago (gradua), eta Arte Ederren Fakultateari buruzko datuetan sartu da.


1. grafikoa. Araubide bereziko arte-irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleen bilakaera



*Oharra: Arte Dramatikoko irakaskuntzak 2015/2016 ikasturtean ezarri ziren. Dantza eta Musikako ikasketetan, ez da daturik aurkitu 2016/2017 ikasturterako.

Iturria: Eskola-jardueraren estatistika, EUSTAT, eta “Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren datuak Euskadin”. Hemen eskura daiteke: <http://www.euskadi.eus/informacion/publicaciones-dae/web01-a2hestat/eu/>

grafikoa. Arte Ederretako lizentziatura eta Arteko, Sorkuntza eta Diseinuko eta KOren Kontserbazioa eta Zaharbertzeaz graduatutako ikasleen bilakaera



Oharra: Boloniako prozesuak Arte Ederretako Lizentziatura amaitu zuen, eta, haren ordez, aipatutako graduak ezarri ziren
Iturria: Unibertsitatearen estatistika, EUSTAT

Maila kuantitatiboan, bilakaerarik positiboena Diseinuko goi-mailako ikasketetarako aurkitu da; 1. grafikoa ikusten da. 2006/2007 ikasturtean, grafiko bietako datuak batzen badira, ikusten da guztira 1887 ikasle matrikulatu zirela goi-mailako arte-irakaskuntzetan eta arte ederretan. Datu hori, berriz, 1801ekoa izan zen 2014/2015 ikasturtean (hori hartzen da erreferentziatzat zeren datuak falta dira hurrengo ikasturteetan). Hain justu ere, diseinuko araubide bereziko goi-mailako ikasketen hazkundeak eta dantzako eta arte dramatikoko plan berrien sarrerak ekiditen dute gehiago ez galtzea eskariaren garrantzia.

Maila kualitatiboan, modu interesgarrian, Boloniako prozesua ezartzeak eragin du aukera gehiago eskaintzea, zeren Arte Ederretako ikasketak hiru gradutan banakatu dira; haien artean, batetik, Sorkuntza eta Diseinukoa eta, bestetik, Artekoa nabarmentzen dira. Nolanahi ere, aukerak hobetzeak eboluzio positiboa eragiten du maila kualitatiboan, nahiz eta, maila kuantitatiboan, ikusten da ikasle gutxi batzuk galdu direla Arte Ederretako Fakultatean.

3 Goi-mailako arte-irakaskuntzei buruzko eztabaida

Goi-mailako arte-irakaskuntzen araugintza-garapenaren haria berreskuratuz, adierazi da LOEk (2006) arte-irakaskuntzak bereizi eta araubide berezikotzat jotzen dituela, LOGSEk 1990ean ezarri bezala. Hori gertatu zen Goi-mailako Hezkuntzako Europar Esparrua eraikitzeke prozesuan bete-betean ari zirenean. Prozesu hori, berriz, Boloniako Deklarazioarekin hasi zen, 1999an, eta areagotu zuen goi-mailako arte-irakaskuntzen erronkak ebazteko inportantzia.

Atal horretan, azaltzen dira bai egungo antolamenduan ondo asmatuak eta haren erronkak. Ongi asmatuetan indarra jartzean, mahai gainean jarri nahi dira irakaskuntza horien elementu bereziak; erronkek, berriz, egungo egoera mantendu ezinak dituen erronkak adierazten dituzte. Hala, zentzua du ongi asmatuak ikusgarri egitea, batez ere hausnarketa etorkizunerantz bideratzeko, zeren, horretarako, unibertsitatean garatu beharko da guztiz.

Horrekin guztiarekin, kapitulu hau amaitu baino lehen, atal bat eskaini behar zaio goi-mailako arte-irakaskuntzen aurreko prestakuntzari; izan ere, ikuspegi globala lortu behar da, egoera hobeto ebaluatzeko.

3.1 Arte-irakaskuntzaren berezitasunak

Lehenengo eta behin, ezagutu behar da zer arrazoi dagoen araubide berezikotzat jotzeko. Horrek gaurko egoeraren zenbait **argi** (edo ongi asmatuak) eskaintzen ditu, aurrera begira mantendu behar diren zenbait elementu azalduz. Merezki du azaltzea elementu horiek erabili zituztela Boloniako prozesuaren eta unibertsitate-egituran integratzearen aurkakoeke (Boloniako prozesu horrek larritu egin zituen egungo egoeraren kontraesanak).

- **Ratio egokituak.** Goi-mailako arte-irakaskuntzek ratio baxuak eta arreta pertsonalizatua behar dituzte; izan ere, sarritan, ekintza efimeroa ebaluatzen da.
- **Izaera praktikoa eta profesionala.** Unibertsitateko irakasgai askoren aldean, goi-mailako arte-irakaskuntzek eduki praktikoa, tekniko eta profesional asko dute. Hori oso garrantzitsua da, ikusi denez, oraintsu goi-mailako izaera lortu duten irakaskuntzetarako.



lido horretatik, jasota dago ezen, artearen kasuan, beste eremu batzuetan tarte askoz ere handiagoa dagoela profesionalik onenen eta tituludunen artean. Hau da, badira profesional (artista) asko eta asko, titulazio akademikorik ez dutenak, eta titulua izateak ez du esan nahi, inondik ere, profesional bikaina izatea, eta titulaziorik gabe ere lortu ahal da aitopen artistikoa.

– **Talentuaren pisua konpetentzien aurrean.** Horrela, aurreko errealitatearen aurrean eta arte-irakaskuntzen goi-mailako ikastetxeetan sartzeko betekizun modura (eta zerikusia du pedagogiarekin eta ebaluazioarekin ere), talentua ezinbestekoa da irakaskuntza hauetan. Unibertsitateetan, berriz, konpetentzietatik abiatuta estandarizatzen dira prozesu horiek.

– **Irakasleen irakaskuntza-jarduera eta jarduera profesionala.** Honek berriro ere lotzen gaitu irakaskuntzen izaera praktikoa eta profesionalarekin. Irakaskuntza horietako irakasleek batu egiten dituzte irakaskuntza eta jarduera profesionala, eta errealitate espezifikoak sortzen dute, legeek jasotzen dutena irakasle-kidegora iristeko araudi espezifikoak ezartzean. Hori talentuaren eta konpetentzien gaiarekin ere lotzen da, eta agerian jartzen ditu arte-eremuan irakaskuntzan (unibertsitatean bezala) jarduteko doktorego-premiei buruzko polemikak.

Aurreko guztiak definitzen du arte-irakaskuntzen berezitasuna, eta, tradizioan, beharrezko argudioak eman ditu defendatzeko arte-irakaskuntzen goi-ikastetxeek unibertsitateetatik kanpo geratu behar dutela (osagai espezifiko irakaskuntza bat “akademiko bihurtzeko” arriskuagatik) berezitasun horretara egokiro iristeko.

Hala ere, argudio horiek elkarren kontra jarri arren unibertsitatean integratu behar den ala ez eztabaidatzean, adierazi behar da, elementuek eztabaidan duten pisua neurtzeko, ezen:

– **Ratioei eta arreta pertsonalizatuari dagokienez:** Boloniako prozesuak indar berezia jartzen zuela tutoretza indibidualizatuak egiteko, hala moldez non unibertsitate-legeriak eginkizun hori betetzeko orduak ematen baitizkio irakasleen lanaldiaren egiturari. Baina hori ez da berdin gertatzen Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat. Gainera, egun, arte-irakaskuntzetako goi-mailako ikastetxeek ez dute gune egokirik eginkizun horretarako. Edozelan ere, unibertsitatean badira ratio handiagoak eta txikiagoak dituzten irakasgaiak.

– **Izaera praktikoa eta profesionalari dagokienez:** Hala eta guztiz ere, unibertsitatean irakasgai asko daude integratuta eduki praktikoa handia dutena, jarduera profesionalari lotuak. Era berean, unibertsitateak aukera ematen du bestelako ikasgaiak emateko hainbat gunetan (laborategietan, tailerretan, ikasgeletan,...).

– **Talentuari eta konpetentziei dagokienez:** goi-mailako arte-irakaskuntzek konpetentzietan ere trebatu behar dute, eta ikasteko tresnak eta estrategiak eskaini. Ikasle guztiak ez dira izango, nahitaez, “artista” (talentuztat jotzen dena), eta ezin da artista onik izan konpetentziarik gabe. Teknikatik eta talentutik haragoko prestakuntza garatzeko, ikasleei estrategiak eman behar zaizkie dituzten ezagutzak aplikatu ahal izateko. Gainera, interesgarria da azaltzea Europan ikerketako zer esperientzia izan den arte-irakaskuntzen eremuan, eta azaltzea programa propio bat behar dela ikerketa eta sorkuntza lotzeko eta, azken finean, irakasleentzako karrera akademikoak eta arteetako ikerketa aplikatukoak garatzeko. lido horretatik, egun eztabaidatzen da ea ikerketa egokitu behar den sorkuntza modura, ikerketen dimentsio hausnarketakoa eta teorikoa sartuz sorkuntzan (zentzu horretan, “ikerketa performatiboaz” hitz egiten ohi da).

3.2 Unibertsitate-garapen osoa

Arte-irakaskuntzen tratua bereziak, arrazoiak arrazoi, ilunak (edo erronkak) sortu ditu haien egungo egoeran. Legeria saiatu da erantzunak ematen, emaitzarik gabe, hala moduz non:

– **Maila sinbolikoan eta izenean,** goi-mailako arte-irakaskuntzetako tituluak ez dira, berez, unibertsitatekoak. Nahiz eta “...-ren baliokideak” izan, ezin dira erabili unibertsitate-gradu edo -master terminoak ikasketak identifikatzeko. Hori bereziki garrantzitsua da kanpora begira eta batez ere Europara begira, zeren, han, goi-mailako arte-irakaskuntzek unibertsitate-maila dute, eta Boloniako terminologia erabiltzen dute (gradua edo *Bachelor of Arts*, BA, eta masterra edo *Master of Arts*, MA). Horrenbestez, baliokidetzak lurralde



nazionalean balio du (araua dagoelako) ondorio guztietarako, baina ezin da sortu baliokidetzak automatikoa eta arazorik gabea kanpora begira, nahiz eta ECTS kredituen bidez antolatuta egon.

Horrez gain, irakaskuntzak unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan ematen dira batez ere (nahiz eta irakasgai desberdinetan espezializatuak izan), eta haien tituluak ez dira jasotzen unibertsitate-tituluen basean.

Errealitate horrek dakar goi-mailako arte-irakaskuntzek duten **onarpen soziala** unibertsitate-irakaskuntzek berez dutena baino txikiagoa izatea, horrek izan ditzakeen ondorioekin balorazio, gizarte-erakarmen eta hezkuntza mailan. Zentzu horretan, errealitateak bide ematen du arte-irakaskuntzen pertzepzio bat sortzen Bigarren Hezkuntzaren eta unibertsitatekoaren artekoa, nahiz eta azken horren parekoa izan.

A *priori* izendapenezko eta sinboliko hutsak ematen duten inplikazio horiek, bestalde, ondorio erreal eta materialak dituzte, egoera horrek eragiten duen gizarte-onarpenarenak baino inportanteagoak.

— **Maila errealean eta materialean**, egungo lege-eraketak kontraesanak ditu; izan ere, unibertsitate-baliokidetzak onartzen du, baina ez kategoriatuak, eta horrek zaildu egiten du goi-mailako arte-irakaskuntzen eta haiek ematen dituzten ikastetxeen garapena. Zentzu horretan, kontua da unibertsitate-baliokidetasuna duen irakasgai bat ematen dela, baina baliabideak eta tresnak, berriz, maila beherago irakaskuntzakoak direla.

Lehenengo eta behin, ikastetxeek ez dute unibertsitateak onartua duen **autonomia osoa**. Oso modu inportantean, goi-mailako arte-irakaskuntza horien **edukia eta titulu-egitura**, azken finean, Hezkuntza Administrazioaren menpe daude. Horrek bereziki zailtzen du gradu-ondoko programa espezializatuak garatzea.

Ondorioz, zailtasunak daude **dotazio ekonomiko, tekniko eta gizakizko** egokia bermatzeko; izan ere, ikastetxeak unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztien barnean geratzen dira.

Zentzu horretan, irakasleek goi-mailako hezkuntza-eremuan irakasten dute, baina Bigarren Hezkuntzako kidegoetako irakasleen kidego baliokideetakoak dira. Horrek esan nahi du ez direla unibertsitate-langileen baliokideak **lanaldiaren egituraren** mailan (irakaskuntza, tutoretzak, ikerketa,...) edo mugitzeko aukerei dagokienez. Bereiziki nabarmentzekoa da ikerketaren gaia, zeren, ez dute garatu hori errazteko mekanismorik, ez ikastetxeetarako zuzkidura egokirik jarri.

Horrela, hirugarren zikloko arte-irakaskuntza azpigaratuta geratzen da neurri handi batean.

Ikastetxeak unibertsitate-araubidekoak ez direnez, ezin zaizkie aplikatu hezkuntzako **kalitate**rik gorena bermatzen duten mekanismo, prozedura eta estandarrik. Desberdintasun inportante bat da doktore-titulua izan behar dela unibertsitate-irakasle izateko, baina halakorik ez dagoela arte-irakaskuntzen araubidean.

LOEren arabera, arte-irakaskuntzetako goi-mailako ikastetxeek beren ikerketa-programak sustatu behar zituzten, eta aukera ematen zuen Hezkuntza Administrazioak erraztasunak eman zitzaizkien unibertsitateekin hitzarmenak sinatzeko doktorego-programak ezartzeko, txosten honen hasieran adierazi zen moduan; hala ere, araudia ez da benetan garatu baliabide eta aurrekontuekin.


Gainera, egungo lege-antolamenduaren babesean, unibertsitateek goi-mailako arte-irakaskuntzak eskaini ditzakete, disainu eta kultura-ondareen kontserbazio eta zaharberritzeari buruzko graduak gertatzen den bezala. Gradu horiek, berriz, aintzakotzat hartzen dira ANECA Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentzia Nazionalako Konbergentzia Europarreko Programan. Gradu horiek erabat unibertsitatekoak dira; horrek, berriz, **desberdintasun**-egoera bat sortzen du, eta **kompetentzia** bat, zeinaren kontra ezin baita borrokatu (horrek, bestalde, ondorioak ditu ikasleen mugikortasunerako, lortu ditzaketen beketarako, ondoren ikasteko izango dituzten aukerarako, kalitate handiaren alde gehiago ebaluatzen den hezkuntza baterako,...).

3.3_ Goi-mailako irakaskuntzen aurreko arte-prestakuntza

Orain arte, goi-mailako arte-irakaskuntzaren ezaugarriak eman dira, kontuan izan gabe haren prestakuntza-aurrekariak. Tarte labur bat hartu behar da goi-mailako arte irakaskuntzen aurreko prestakuntza-ibilbideen eskemak egiteko eta ibilbideoi buruz hausnartzeko.

Ondorioz, honetaz hitz egin behar da:

1. Arte-irakaskuntzak araubide orokorreko ikasketetan sartzea (arte-batxilergoak).
2. Araubide orokorrekoak diren arte-eremuetako goi- eta erdi-mailako graduak heziketa-zikloak.
3. Araubide bereziaren berezko arte-irakaskuntza profesionalak.



Ikus daitekeenez, goi-irakaskuntzen aurretik, hainbat aukera daude prestatzeko, zeinetan artea protagonista modura agertzen baita modu desberdinetan:

1. Araubide orokorraren barruan, DBH behar da arte-batxilergo edo erdi-mailako heziketa-ziklo batera iristeko. DBH barik ere, nahiz eta ez azaldu aurreko eskeman, oinarrizko lanbide-heziketako programak daude, erdi-mailako graduetan sartzeko balio dutenak.

LHn, arte-eremuei dagokienez, hiru familia profesional irakasten dira: Arte eta Artisautzak, Arte Grafikoak eta Irudia eta Soinua⁸. Neurri handi batean, araubide orokorraren barruan sartzen dira, laguntzaileak direlako artea eta kultura garatzeko.

2. Araubide berezitik, ikastetxean egiten den proba berezi bat gainditu behar da arte-irakaskuntza profesioalera iristeko⁹. Kasu honetan, honako hauek bereiztu behar dira:

- a. Musika eta dantzako ikasketak egiteko, ez da beharrezkoa DBH titulua izatea; beraz, ulertzen da aurretik trebetasun artistiko hutsak daudela (sarrera-probaren bidez aztertuta).
- b. Arte Plastikoetako eta Diseinuko erdi- eta goi-mailako graduak egiteko, berriz, DBH behar da. Sarrera-proba espezifiko bidez ere irits daiteke haietarako, baina, kasu horretan, ez dira aztertzen trebetasun artistikoak, DBH edo Batxilergoaren ezagutza baliokideak baizik, kasuaren arabera (erdi- edo goi-mailakora iristeko).

Ikus daitekeenez, terminologiak nahastea eragin dezake: araubide berezian ere erdi- eta goi-mailako gradu kontzeptuak erabiltzen dira (Arte Plastikoak eta Diseinuaren kasurako), baina araubidearen inplikazio espezifikoekin.

3. Begirada automatikoa inportantea da ikusteko diziplina batzuk ez daudela ordezkaturata maila profesionalean, baina goi-mailan (bereziki arte eszenikoen kasuan).

8_ **Bilatzailer honetan** kontsulta daiteke zein irakaskuntza ematen diren EAEn eta zein ikastetxetan. (ez daude familia guztietako irakaskuntzak LHko maila guztietan).

9_ Dokumentu hauek zabaldu egiten dute EAEn ematen den irakaskuntza bakoitzari buruzko informazioa: **Arte Plastikoak eta Diseinua**, **Musika** eta **Dantza**



Zentzu horretan, estatu-mailan balioa duten ziurtagiri akademikoak lortzera bideratuta ez dauden derrigorrezkoen ondoko irakaskuntzak garatzeko autonomietako eskumenak erabiliz, Kataluniako Generalitateak titulu propioak garatu ditu bere lurraldean: erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloak, antzezkeraren eta zirkuaren eremuan (Generalitateko tituluak, teknikariarenak edo goi-mailako teknikariarenak)¹⁰.

Errealitate hori EAEko testuingurura ekarriz, horrela, ikusten da ikasleak Dantzertira doazela arte dramatikoko goi-mailako ikasketak egitera baina ez dutela aurretik egituratutako prestakuntzarik, gutxi-asko estandarizaturik. Era berean, zirkuaren kasuan, Zirkozaurreko prestakuntza ezin pareka daiteke heziketa-ziklo batekin.

Alderdi horretatik, gogoratu behar da 1983 eta 1992 bitartean “Antzerti” zegoela, Donostian. Arte Dramatikoko Zerbitzua eta Antzerki Eskola zen, Eusko Jaurlaritzarena¹¹. Ekimen hori ez zen espresuki zuzendu prestakuntza-arazoa zuzentzera (zerbitzu bakar batean biltzen zituen hainbat eremutako jarduketa, aurretik koordinatu gabeak), baina aurrerapauso bat izan zen sektorea ezagutzeko eta haren premiak kontuan hartzeko. Horri esker, 10 urtean, laguntza bat sistematizatu zen, eta gaurko egoera zorretan dago harekin; izan ere, orduan prestatu ziren sektore eszenikoko egungo profesional asko eta asko.

Batez ere azken puntu hori kontuan hartuta, hausnarketa bat nabarmendu behar da, dioena diziplina guztietan aurreko prestakuntza bat behar dela, batez ere musika eta dantzarekin gertatzen den moduan, arte-irakaskuntzak eta haiek ikastea berezi bilakatzen dituzten konpetentziak indartzeko.

Testuinguru horretan, prestakuntza-ibilbideen aniztasuna, balio erantsi baino gehiago, ahulezia bilakatzen da. Erreferentziazko prestakuntza-ibilbide argi bat falta da, lagundu behar duena arte-irakaskuntza guztien kalitatea hobetzen, hala diziplina guztiena, nola etapa guztietan: prestakuntza-ibilbide lineala, osoa eta ongi estandarizatu/legez formalizatua.

Zentzu horretan, esperientzia bat nabarmen daiteke, DBH + Batxilergoa eta arte-irakaskuntzen titulu profesionala integratzen dituen tituluena. Esperientzia pilotu hori martxan jarri duten kasu bakarra Bartzelonako Oriol Martorell Arte Institutu Eskola izan da.

Horrela, ikasleak 18 urterekin amaitzen du Batxilergo tituluarekin eta musika edo dantzako titulu profesionalarekin. Hori, beraz, arte-batxilergoenaz bestelako kasua da. Asmo handikoa da, hasieratik amaiera arte arteko prestakuntza-ibilbide argiak oinarritzeko integratua eta zuzendua, eta ikaskuntza modu integralean ematen duena. Musika eta dantzako irakaskuntza profesionalen izaeragatik, erraza da DBH eta batxilergoan integratzea, prestakuntza-urteak bat datoz eta.

10_ Kontsultatzeko adibide modura, **ehainaren Zko 84/2015 Dekretuak** zirkuo animazioko teknikari-titulua (zirku-irakaskuntzetako erdi-mailako heziketa-zikloa) eta antzezkerako goi-mailako teknikari-titulua (antzkerki-irakaskuntzen goi-mailako zikloa) sortu zituen.

11_ Hurrengo estekan kontsulta daiteke hura sortu zuen dekretua: https://www.euskadi.eus/contenidos/decreto/bopv198300571/eu_def/

4 Europako esperientziatik egindako hausnarketa

Prozesu honetan, arte-irakaskuntzen egoera hobetzeko, begirada Europara begira jarri da maiz: Zer formula erabilia integratu dira arte-irakaskuntzak unibertsitatean?¹²

Aukera desberdinak onartzeak balio du hala Espainiako egungo garapenaren argi-ilunak hobeto ulertzeko nola begirada etorkizuneko agertokietan jartzeko.

4.1 Goi-mailako arte-irakaskuntzak antolatzeako formulak

Lehenengo eta behin, azpimarratu behar da ezen, Europako testuinguruan, ez dela normala goi-mailako arte-irakaskuntzek unibertsitateko baliokidetzaz izatea baina unibertsitateak bereizita egotea, eta salbuespen bakarrak Frantzia eta Italia dira, Espainiarekin batera. Gainerako kasuetan, bestelako formulek izaera erabat unibertsitatekoa eman diete arte-irakaskuntzei Boloniako Deklarazioak bultzatutako homogeneizazio-prozesutik aurrera.

Hala, bilakaeraren patroia amankomuna da unibertsitate-izaera hori onartzea, nahiz eta handia izan aldakortasuna: izan ere, errealitate desberdinak daude, herrialde beraren barnean ere.

Bigarrenik, Europako konparatibora hurbiltzeko, funtsezkoa da bide profesionalak (bokaziozkoak) eta akademikoak bereiztea. Europako herrialderik garrantzitsuenen artean, unibertsitateak hezkuntza-sistema dual batean antolatzen dira, zeinak bi bide identifikatzen baititu: bide profesional eta teknikoago bat eta bide akademiko eta ikertzaile bat. Ondorioz, bi unibertsitate-mota daude, ematen duten irakaskuntza-motak eta haren xedeak bereizten dituztenak: **unibertsitate akademikoak** edo ikerketakoak eta **unibertsitate aplikatuak**. Biek hartzen dituzte barnean oso irakasgai desberdinak, baina bereizten dira zeren aplikatuek orientazio profesional eta espezializatuago dute, eta, horregatik, master-mailara arteko ikasketak ematen dituzte (nahiz eta ikertu dezaketen, ez dute doktore-titulurik eskaintzen).

¹² Francisc Xavier Grauk Kulturaren eta Arteen Kataluniako Kulturaren Kontseilu Nazionalerako (CoNCA) egindako txostenaren eranskina da informazioaren iturria, hemen eskuragarria: http://conca.gencat.cat/web/content/axius/publicacions/educacio_superior_ambit_artistic_Catalunya/Higher-Education-in-the-Arts.pdf

Agertoki horren aurrean, herrialde gehiagotan integratu dira ikasketak unibertsitate aplikatuetan, Britainia Handiaren salbuespen handiarekin, zeinean arte-irakaskuntzek pisu itzela baitute unibertsitate akademikoetan. Batez ere unibertsitate aplikatuetan integratze horrek (izaera profesional eta espezializatuagoa dute) ematen du erlazionatuta dagoela arte-irakaskuntzetarako adierazi den berezitasunarekin, zeina izan baita unibertsitatean integratzeko oztoporik handiena Espainiako kasuan, zeren unibertsitateak ez dira antolatzen izaera dualaz. Hala ere, puntu honetan onartu behar da ez dela berezitasun bakarra; gainera, izaera hori partekatzen duten beste ikasketak batzuk erabat integratu dira unibertsitatean.

Hirugarrenik, unibertsitatean integratzean eta unibertsitatez kanpoko goi-mailako ikastetxeak mantentzean, **Arteen Unibertsitateak** sortu dira kasu batzuetan, goi-mailako ikastetxeak bilduz eta erakunde berriari unibertsitate-izaera emanez. Kasu horretan ere, doktorego-programak ematen dituztenak eta ematen ez dituztenak bereiz daitezke, bigarrenak izanik ohikoena, arte-irakaskuntzen izaera kontuan hartuz.

Hala ere, formulak formula, merezi du aitortzea ezen, Europan, joera hasiberri bat dagoela doktorego- eta ikerketa-programak garatzeko arte-irakaskuntzen eremuan. Hori gertatzen da jakintzaren ekonomiaren aldeko diskurtsoen goraldi baten testuinguruan, non artearen, zientziaren eta teknologiaren arteko elkarrekintzak balio-ekarpen bat ematen baitu. Testuinguru horretan, goi-mailako arte-irakaskuntzek aukera dute ekarpen original eta esanguratsuak egiteko, ikerketa aberastuz arte-metodoetatik abiatuta. Ikerketarantz doan bilakaera identifikatzen da erabat unibertsitatekotzat jotzeko azken aro modura.

4.2 Espainiaren kasurako izan daitezkeen agertokiak

Hori guztia kontuan izanik eta erreferentzia-dokumentuak aintzakotzat harturik, esaterako Antonio Embid Irujok 1997an¹⁴ egindako txostena edo Arte Irakaskuntzen Goi-mailako Ikastetxeen Espainiako Elkarteak (ACESEA) 2017an¹⁵ Goi-mailako Arte Irakaskuntzen Lege Nazionalaren proposamen berriari buruz egindako txostena eta Víctor Pliego de Andrések 2014an¹⁶ egindako laburpen-artikuluak, hauek dira ikus daitezkeen formula nagusiak:

Kontserbazioa	Atxikipena	Integrazioa	Sorkuntza
Erakunde espezifikoak mantentzea, eta unibertsitatekotzat jotzea esparru propio batean.	Goi-mailako eskolak unibertsitateei atxikitzea hitzarmen bidez, haien egitura mantentzea.	Goi-mailako ikastetxeak unibertsitate-egituretan sartzea.	Arteen Unibertsitatea eratzea, eta diziplina guztiak esparru berean eratzea.

Interesgarria da antzematea ezen, lehenik eta behin, aipatutako dokumentuen datak oso berezita daudela denboran: aspalditik dator arte-irakaskuntzei unibertsitate-izaera osoa emateko premia eta aukerei buruzko eztabaida. Horrek zerikusia du arte-irakaskuntzen legeri espezifiko baten garapen historikoarekin (gaur egun arte-irakaskuntzat jotzen diren arteko bereizketak barne). Nahiz eta hezkuntza-sistemari buruzko antolamendu orokorrari buruzko legerik berrienak irakaskuntza horiek sartu, araubide bereziko izaerarekin sartu dituzte, bereizketa bat mantenduz.

13_Artearen, zientziaren eta kulturaren elkarrekintza ulertzeko, Kulturaren Euskal Behatokiaren "Zientzia kultura-politiken esparruan" txostena kontsulta daiteke.

14_Hemen eskuratu daiteke: <https://www.acesea.es/wp-content/uploads/2017/08/informe1997.pdf> (Azken kontsulta: 2019ko apirilaren 4koa)

15_Hemen eskuratu daiteke: <https://www.acesea.es/wp-content/uploads/2017/12/2017-propuesta-Ley-Nacional-de-Enseñanzas-Artisticas-Superiores1.pdf> (Azken kontsulta: 2019ko apirila 4koa)

16_Hemen eskuratu daiteke: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/5270489.pdf> (Azken kontsulta: 2019ko apirilaren 4koa)



Urteetan zehar, konponbide politikoa/legala alde batera uzteko faktore nagusiak izan dira hala hasitako bidearen mendekotasun bera nola sektorearen erresistentziak, arte-irakaskuntzaren berezitasunetan oinarrituak (erresistentzia horiek larritu egin ziren Boloniako Prozesuaren ondorioz). Egungo puntura helduta, Auzitegi Gorenaren epaien ostean, agortu egin da unibertsitate-izaera osoa lortzeko egungo bidea.

Egoera horren aurrean, hala autonomia-erkidego batzuek nola arte-irakaskuntzen ardura duten hezkuntza-administrazioek –zein bere lurraldean– adierazitako bideren bat eztabaidatu dute edo, are gehiago, aurrera egin dute bideren baten. Kasu desberdinen eztabaidak eta ekintzak hartu duten norabidea labur azaldu aurretik, esan behar da mugimendu horiek irismen edo potentzial mugatua dutela egoera behar bezala konpontzeko. Zentzu horretan, aukeratzen den bidea aukeratzen dela, konponbide orokorra da legeri estatal berri bat sortzea behin betiko, arte-irakaskuntzen unibertsitate-izaera juridikoki bermatuko duena.

Autonomia-erkidegoetako mugimendu horiek, nolahi ere, egoera sektorearen eta gizartearen alde konpontzeko premiaren eta interesaren adierazle argiak dira. Nahiz eta ez izan arazoa sakonetik konpontzeko gaitasunik, saiatzen dira zenbait alderdi jakin hobetzen, esaterako ikastetxeen autonomia, haiek unibertsitate-sistemeekin eta gainerako graduekin koordinatzea, baita hezkuntza-eragileak kultura-sektorean integratzea ere, eta, azken finean, haiek sozialki eta profesionalki onartzea.

Illo horretatik, Aragoi, adibidez, Goi-mailako Arte Irakaskuntzen Aragoiko Institutua eta Arte Irakaskuntzen Aragoiko Kontseilua sortu ziren (17/2013 Legea). Institutua eratzeak aukerak aterki bat eskaintzen du egon dauden goi-mailako ikastetxeak antolatu eta koordinatzeko, autonomia-esparru propioa eskainiz. Gaurko legearen oinarrian, ikastetxeak autonomia-erkidegoko hezkuntza-sailari atxiki modura sortzen dira, zeinak, kasu honetan, hezkuntza-administrazio eskudunak baitira. Modu sintomatikoan, Aragoiko Autonomia Erkidegoaren Neurri Fiskal eta Administrazioei buruzko 10/2012 Legeak proiektua indargabetu zuen. Azaleko edo eskumenik gabeko administrazio-egiturak desegiteko, institutua kendu zen, eta haren eginkizunak sail eskudunari atxiki zitzaizkion.

Andaluziako kasuan, Institutua garatzeko (Andaluziako Hezkuntzako 17/2007 Legearen bidez onartua), haren estatutuak izapidetu behar dira, zeren adierazten dute noiz sartuko den indarrean institutua. Era berean, Kataluniako kasuan, Hezkuntza Legeak (LEC, 2009), Institut Superior de les Arts (ISA) sortu zuen. Nahiz eta bi urtean garatu behar zen, sine data atzeratu zen hurrengo gobernuak legea aldatu zuenean; horrela, legez sortuta badago ere, ez da garatu.

Valentzian, berriz, institutua martxan jarri da, modu garatuan. Kasu horretan, institutuak benetan lagundu du goi-mailako arte-irakaskuntzak garatzen. Zehazki, bultzada bat izan da Estatuko legerian ezarritako aurreikuspenak garatzeko; esaterako, ikastetxeen/institutuaren autonomia hobetzeko, ikerketa-programei aurrekontua esleitzeko edo irakasleen lanaldia egokitzeak ikerketa garatzeko.

Ikastetxeak batzea eta institutu sortu berriei atxikitzea, zeinak aterkiarena edo organo amankomunarena egiten baitu, “sortzearen” antzeko bidea da, nahiz eta, egungo mugak izanda, ez dira unibertsitateak sortzen, institutuak baizik. Beste erkidego batzuetan, esaterako Katalunian, ez dago araugintza-garapenik, baina eztabaida gai-zerrendan ere badago. Adibidez, Kataluniako Kulturaren Kontseilu Nazionalak (CoNCA) oraintsu egindako txosten batek azpimarratzen du aurrera egin behar dela goi-mailako arte-irakaskuntzen garapenean, esplizituki apustu eginez Katalunian Arteen Unibertsitate bat sortzearen alde edo, aukeran, arte-irakaskuntzen ikastetxeak Bartzelonako Unibertsitatean integratzearen alde (Arte Ederretako fakultatea duen bakararra).

Kasu horietan guztietan, mugimendu horiek argi uzten dute zer premia eta interes duten sektoreak eta gizarteak aurrera egiteko arte-irakaskuntzak garatzen, baina errealitate horrek topo egiten du Estatuko egungo araudiarekin. Beraz, bide horiek, gehienez ere, lagunduko lukete garapen bat egiteko, efektibo ez dena, nahiz eta legerian aspaldi egon aurreikusita. Hala ere, ez dute arazoa sustraitik ebazteko gaitasunik: irakaskuntza erabat unibertsitatekotzat jotzeko, zeren, horretarako, Estatuko legeria eraberritu behar da.

5 Ondorioa: egoeraren laburpena eta erronkak

Txosten honen sarreran onartzen denez, goi-mailako arte-irakaskuntzek balio handia dute bizitza kultural aberats, askotariko eta kalitatezkoa garatzeko. Goi-mailako arte-prestakuntza giltzarria da kulturaren balio-katean. Gainera, lehentasun estrategiko bat da ekonomia sortzailearen estrategiak garatzeko; horretarako, bestalde, beharrezkoak dira zientzia eta artea, hala ikerketa nola esperimantazioa.

Analisiak goi-mailako arte-irakaskuntzen lege-garapen osagabea identifikatzen du. Muga nagusiak zerikusia du egungo lege-esparruarekin: arte-irakaskuntzen singularitasunak onartzen ditu, baina haren ibilbidea mugatzen du, zeren ez du onartzen unibertsitate-izaera osoa.

Nahiz eta ikuspegi hori erabakigarria izan, agerian uzten du ezen, arte eszenikoen kasurako, ahula dela goi-irakaskuntzen aurreko etapa osoa, eta ez dagoela ibilbide lineal, oso eta formalki araturik Estatu mailan. Egoera horren aurrean, autonomia-erkidegoek, esaterako Kataluniak, konponbide propioak diseinatu dituzte.

Hala eta guztiz ere, datuek erakusten dute ezen arte-irakaskuntzen eskaria, neurri handi batean, egonkor mantentzen dela. Oraintsu eskaintza berria (dantza eta arte dramatikoa) sortzeak eta aukera zabaltzeak (Arte Ederretako lizentziatura hainbat gradutan banatzea) lagundu egiten du haiek testuinguru sozial eta ekonomiko batean mantentzen, zeinak sakonago garatzeko aukera onak eskaintzen baititu. Garapen hori beharrezkoa da testuingurura egokitzeko, zeren, testuinguru horretan, garrantzia hartzen dute hala industria sortzaileek nola jasangarritasunaren zutoin modura kulturak duen pisuak.

Arte-irakaskuntzen berezitasuna onartzeak lagundu behar du haren bilakaera egokiro bideratzen, eta ezin du galgarena egin. Nahiz eta, azken finean, unibertsitate-izaera osoaren ideian eta baliokidetzan automatikoa (bereziki inportantea Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruko testuinguruan) gauzatu erronka desberdinak, garrantzitsua da banan-banan zehatzea zein diren indarrean den legeriaren erronkak, hezkuntza-administrazioei eta ikastetxeei eragiten (edo interpelatzen) dietenak:

- Legeri batean aurrera egitea, arte-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen autonomia-esparrua handitzeko.
- Sustatzea ikastetxeek eurek gara dezatela gradu-ondoko programa eskaintza anitza eta kalitatezkoa; izan ere, onartzen da hezkuntza-administrazioari proposatzeko gaitasuna dutela.



- Irakaskuntzaren kalitatea ebaluatzeko mekanismoak sartzea hezkuntza-administrazio bakoitzaren unibertsitate-kalitateko agentzien bidez.
- Hezkuntza-administratibotik bultzatzea unibertsitatearen eta goi-mailako ikastetxeen artean hitzarmenak ezar daitezela doktorego-programak eskaintzeko.
- Gaur egun dagoen ikastetxe-zatiketa gainditzea, baliabideak hobeto ikusteko eta eraginkorrago antolatzeko.
- Araubide bereziko arte-irakaskuntzetako ikasleen beka-sistema hobetzea, eta unibertsitate-eremuan dauden aukera berak ematea ikasle horiei.
- Ikerketa sustatzea, “ikerketa, berrikuntza eta sorkuntza” (I+b+S) eta ikerketa performatiboaren kontzeptupean, eztabaida eta trukea sustatuz aurrera egiteko haiek finkatzen, eta baliabide gehiago jarritz proiektuetarako eta aldizkari zientifikoak argitaratzeko deialdiak finantzatzeko.
- Mekanismoak bultzatzea karrera ikertzailea egiaztatzeko.
- Irakasleen lanaldi-egitura eraberritzea, ikerketa-atazei tokia emateko.

Horrek laguntzen du ulertzen ezen, nahiz eta aldaketa bat aldarrikatu behar den estatu-mailan, EAeko egungo arau-esparruan aldaketak bultzatu daitezkeela, zeinak, nahiz eta analisi honek azaltzen dituen mugak izan, positiboak izan baitaitezke sektorerako.

Zer arrazoik eraman behar du Administrazioa goi-mailako arte-irakaskuntzen unibertsitate-izaera osoaren alde egitera? Kontua izan behar da hezkuntza publikoa eskaintzea, kalitate gorenekoa eta eremu honetara ere zabaltzen dena. Egungo testuinguruan, ikastetxeek eta unibertsitate pribatuek aukera dute nork bere gradu propioko titulazioak ezartzeko prozesua garatzeko. Titulu horiek unibertsitate-izaera osoa eta baliokidetzat automatikoa dute; beraz, hezkuntza publikoak erabateko desabantaila du eremu horretan. Zentzu horretan, ukitu nagusiak herritarrak dira eta, zeharka, kultura-garapen askotarikoa, kalitatezkoa eta berdintasunezkoa publikoki bermatzeko aukera.

Gainera, aukera estrategiko bat aprobetxatu behar da, planteatzen duena arte-irakaskuntza hobetzea EAeko premia eta interes sozial eta ekonomikoen alde.





Goi-mailako arte egoera eta erronkak EAEn



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA